

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Laguntza izatea beharrezkoa dugu, horregatik pentsatu dugu beste elkarte batzuekin harremanetan egotea oso baliagarri suertatu daitekeela gure webgunea aurrera eramateko orduan. Horrela, adibidez, fidagarritasuna irabaztea errazagoa izango da, webgunearen izena azkarrago zabalduko da eta beste elkarte batzuk ere gomendatzen badute erabiltzaile kopurua hazi egingo da.

Lanean jarduteko lokal bat behar izango dugu eta honek ura, argi indarra, gasa, eta Interneta barne izan beharko ditu. Gure herriko poligono industrialean UGGASA (Urola Garaiko Garapenerako Agentzia S.A.) izeneko agentziarekin kontaktatuko dugu honetarako, ekintzaile berriei laguntza bat ematen diete eta prezio baxu baten truke behar dugun guztia eskura izan ahalko dugu.

Horretaz gain hau Euskal Herrian sortutako webgunea denez, Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jarriko gara, beraien babes oso garrantzitsua izango da guretzat, horrela webgunea erabiltzaileentzat seguruagoa suertatzeko eta konfiantza maila handiagoa izateko, erakunde publiko bat denez babes oso emango digu.

Osakidetzarekin ere kontaktatuko dugu. Adituak direnez, esparru askotan laguntza handia eskaini ahal izango digute. Informazioa partekatu ahal izango dute gurekin eta webgunea informazio ziur eta egiazkoaz osatuko dugu. Gainera, ospitaleetan gure webgunea gomendatu ahal izango diete bezeroei, horrela gure audientzia kopurua igotzea lortuz. Horrelako elkarte handi eta garrantzitsuarekin lotura izatea onura handia izango da guretzat.

Osakidetzarekin lotuta, gure aliantza nagusia matronarekin eta sexologoekin izango da. Webguneko erabiltzaileek aukera izango dute gurekin zuzenean kontaktatu eta beraien duda nagusiak azaltzeko. Matronak eta sexologoak ematen diguten informazioaren bidez gai izango gara hauei erantzun egoki eta zuzenak emateko.

Gure proiektua babestu dezaten, ikastetxeekin kontaktua mantentzea oso garrantzitsua da, bezero ugari lortzeko eta SexInf zabaltzeko bide ezin

hobea delako. Gainera, zuzeneko harremana bideratuko genuke eta aurrez-aurre aurkeztuko genieke proiektuaren xedea. Herri desberdinetako eskoletara joango gara, 15-18 urte bitarteko ikasleekin hitzaldiak antolatuko ditugu eta beraien dudak zeintzuk diren jasotzeaz gain, Sexinf webgunea ere promozionatu egingo dugu.

Webgunea ezagutzera ematea izango da erronka handiena. Gazteen ahotan Sexinf ibiltzea nahi dugu, denek haren berri izatea eta guri esker haiek ere informatuago egotea, horregatik euskal “influentzerrekin” kontaktatu nahi dugu. Haiek beraien sare sozialetan gure webgunearen berri ematea eta hala beraien jarraitzaileek guri ere jarraitzea. Geroz eta gazte gehiagok ezagutu, orduan eta hobe.

“Influentzerretaz” aparte prentsarekin kontaktatzea ere garrantzitsua dela iruditzen zaigu, Berria, Gara, Hitz, El Diario Vasco... bezalako egunkari zein aldizkariekin hain zuzen ere. Horrela gure webgunearen izena gehiago zabaltzea posible izango da, eta ondorioz bisita gehiago lortu ahal izango ditugu.

Patenteari dagokionez, oso gai garrantzitsua iruditzen zaigu, izan ere, behar bezala patentatuta baldin badago, gobernuarekin arazoak edukitzea eta beste enprekin gatazkak saihestuko ditugu, eta bide batez, gure enpresa babestuko dugu. Hau betetzeko, abokatu bat beharko genuke eta zorionez gure inguruan zuzenbide ikasketak egiten ari eta gu laguntzeko prest dauden hainbat ezagun ditugu. Abokatu bat kontratatzearen kostu handia saihestuko dugu horrela.

Elkarte hauekin denekin kontaktatzea lortzen badugu, gure informazio iturriak aberatsagoak izango dira, laguntza gehiago izango dugu ekintzak aurrera eramateko orduan, eta Sexinf ezagutarazi ere baliabide gehiago izango ditugu.

